

# Trenbideko langileriaren depurazioa Gerra Zibilean eta frankismoan: Tuteraren eta Sakanaren arteko konparaketa

Aitor Carrillo Pérez  
Nafarroako Unibertsitate Publikoa (UPNA/NUP)

Lan honen asmoa, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren barruko Nafarroako Oroimen Historikoaren Dokumentu Funtsak hainbat urtez egiten daraman ikerketa-proiektuaren barnean kokatua, Gerra Zibilak eta frankismoak iraun bitartean gertatutako trenbideko langileen depurazio-prozesuaren ikerketan aurrera egitea da, Tuterako eta Sakanako geltokietako langileei ireki zitzaizkien depurazio-espedienteen ikerketaren bidez. Dokumentu horietatik, langileen izenak, lanbideak, militantzia politiko eta sindikal ezagunak, eta pairatutako zigorrak aterako ditugu. Gero, lan-zigorrak ikertuko ditugu lanbidearen, geltokiaren, agente errepresiboen balorazioaren eta militantzia ezagunaren arabera. Azkenik, enpresak balorazio onak estrategia baten ondorioz ematen zituela eta militantzia ezaguna zuten langileek militantzia ezagunik gabeko langileek baino proportzionalki lan-zigor gehiago pairatu zituztela ondorioztatuko dugu.

GAKO-HITZAK: Frankismoa · Trenbideak · Langileen depurazioa · Espainiako Gerra Zibila.

## The depuration of the railway workers during the Spanish Civil War and the Franco's regime: the comparison between Tudela and Sakana

The aim of this article, located within the research work that the Documental Fund for Historical Memory in Navarre (*Fondo Documental para la Memoria Histórica de Navarra*), part of the Public University of Navarre (UPNA-NUP), is to advance within the research task of the depuration of the railway workers during the Spanish Civil war and Franco's dictatorship, which will be done by analyzing the depuration files of the Tudela and Sakana railway stations. From this documents, we will get their names, professions, known political and trade union militancies, as well as the labor punishments they suffered. After that, we will analyse those work punishments according to the professions, the railway stations, the known militancies and the valoration of the repressive agents. Eventually, we will conclude that the enterprise gave good valorations following a strategy, and that the workers with a known political or labor union militancy suffered proportionally more labor punishments than the workers without a known militancy.

KEY WORDS: Francoism · Railways · Workers' depuration · Spanish Civil War.

<https://doi.org/10.26876/uztaro.125.2023.2>

*Jasotze-data:* 2022-08-22 *Onartze-data:* 2022-10-10

## Sarrera

Espainiako Gerra Zibilaren eta gerraostearen garaian, errepresio-sistema frankistak hainbat depurazio-prozesu abiatu zituen. Langile publiko guztiak, zerbitzu publikoen emakidadunak ziren enpresak barne (trenbideko enpresen kasua bezala), ikertuak izan ziren, haien ideologia eta aurrekariak, bai gerran bai gerra aurretik, ezagutzeko helburuarekin. Horren arabera, enpresek langileak lanpostuan mantentzen zituzten, zigorra ezarrita ala ez, edo kanporatu, zeren diktaduraren depurazio-prozesu horiek guztiak Estatu Berriaren eraikuntza oztopa zezaketen pertsona guztien kanporatzea helburutzat baitzuten. Gerra Zibilean eta frankismoan gertatu zen trenbideko langileen depurazioari buruzko ikerketa gutxi egin dira duela urte gutxi arte, eta bereziki aipagarria da 2015ean Francisco Polo Murielak defendatutako tesia. Nahiz eta frankismoak martxan jarritako beste depurazio profesionalen ikerketa askoz aurreratuagoa egon, trenbidearen sektorean gertatutakoak hutsune ugari ditu oraindik. Egoera hori ikusita, geure buruari jarri diogun helburua da *Compañía de los Caminos de Hierro del Norte de España* enpresako langileei, Tuterako eta Sakanako geltokietakoei, zehazki, irekitako depurazio-espeditenteak ikertzea, haien osaera, parte hartu zuten errepresio-agenteak eta ezarritako zigorrak, ezagutzearren. Laburpenean esan bezala, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Nafarroako Oroimen Historikoaren Dokumentu Funtsak (NOHDF) hainbat urtez garatzen daraman lan-proiektuaren barne kokatzen da guk egindakoa, abiapuntu bat izateko intentziona duena.

Trenbideko langileen kasuan, espeditente horiek, 1936 eta 1942 bitartean irekiak, langilearen lanbideari, lantokiari, militantziari, ideologiari eta gerra aurreko, bitarteko edo osteko portaerari buruz galdetzen zuten. Depurazioa zeraman epailearen usteen arabera, langileak berronartuak edo berrezarriak<sup>1</sup> izaten ziren, zigorrarekin edo zigorrik gabe, edo kanporatuak izaten ziren. Errepresio-uholde askoz zabalago baten barnean ulertu behar dugu trenbidearena; izan ere, erregimen berriaren helburua langileria publiko guztiaren garbiketa ideologikoa, depurazioa, egitea zen, erregimen frankistaren sorkuntza zaildu zezaketen langile guztiak kanporatuz.

Lan hau Salamancako Memoria Historikorako Dokumentu Zentroan gordetako depurazio-espeditenteen ikerketaren bidez egin da, erakunde horrek Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin sinatutako hitzarmen bati esker. Horren bidez, Salamancakoek dokumentuen kopia digitalizatuak egin zituzten eta NUPeko NOHDFrekin partekatu. Zona zehatz batzuen ikerketara mugatuko garen arren, gure lanaren oinarriak jadanik aipatutako Polo Murielen tesia, Mirari Arangurennek 2017an defendatutako Gradu Amaierako Lana, eta Tuterako zein Sakanako trenbideetako langileen espeditenteak izango dira. *Navarra 1936. De la esperanza al terror* liburua ere erabiliko dugu, Nafarroako errepresio frankistari buruzko libururik zabalena eta dokumentatuena baita, depurazioei buruzko bibliografia ugarirekin batera.

---

1. Polo Murielak *readmitido/a* eta *reingresado/a* hitzak erabiltzen ditu, langileari espeditentea irekitako unearen arabera, aplikatutako legedia ezberdina baitzen. Guk «berronartuak» eta «berrezarriak» hitzak, hurrenez hurren, erabiliko ditugu. Langile berronartuek gerrak iraun bitartean jasan zuten depurazio-prozesua; langile berrezarriek, aldiz, gerra bukatu ostean, legedia ezberdina baitzen.

# 1. Testuingurua

## 1.1. Nafarroa

Hamarkada horretako Nafarroa landa-eremukoa zen gehienbat. 1930ean, 345.883 biztanle zituen probintziak. Iruñeak, aldiz, 42.259 biztanle, eta Tuterak 11.248. Populazioaren % 64 nekazaria zen, baina lurren gehiengoa lur-jabe handien gutxiengoaren eskuetan zegoen. Politika aldetik, Nafarroan botoen gehiengoa eskuinek jaso zuten. 1936ko hauteskunde orokorretan, Fronte Popularrak botoen % 21,7 baino ez zuen lortu, indar handia bazuen ere Erriberan, Tafallan, Altsasun, Olaztin eta Erronkaribarrean zein Zaraitzu ibarrean. Adibide batzuk jartzearen, hauteskunde horietan, Tuteran, Fronte Popularrak 2.769 boto jaso zituen, eta eskuinek 2.574; Esan, ezkerrek 92 eta eskuinek 56; Sartagudan, «Alargunen Herria» deituko zen udalean, ezkerrek 351 eta eskuinek 166 (García Umbón, 2005: 247-249). Kasualitatez, leku horiek jasan zuten errepresiorik bortitzena uztailaren 18a eta gero, NOHDFk (Majuelo et al., 2021: 21-22, 27) eta Mikelarenak (Mikelarena, 2015: 23-37) frogatu duten bezala<sup>2</sup>. Nafarroan, estatu-kolpeari karlistak nagusi zituen herri-altxamendu batek jarraitu zion, probintzian nagusibaitziren. Erresistentzia ezinezkoa izan zen. Halere, hau ez zen oztopo izan kolpistek lurraldea odolez betetzeko: ikerketa eguneratuenean arabera, 2.934 erailketa, 448 heriotza presondegian, eta 125 heriotza bestelako testuinguru errepresiboetan (Majuelo et al., 2021: 10)<sup>3</sup>. Baina bakarrik hildako pertsonen kopurua kontatzeak errealitatea izugarri mugatzen du. Gertakari errepresiboak<sup>4</sup> pairatu zituzten pertsonen kopurua, errepresio mota guztiak kontutan hartuko bagenitu, atxiloketak edo umiliazioak bezala, kalkulazina izango litzateke.

Tuterak, XX. mendeko lehen hamarkadetan zehar, korrante ideologiko demokratiko eta liberal baten garapena ikusi zuen. Bigarren Errepublikako hauteskunde guztiak, 1933koak salbu, zentro-ezkerreko edo ezkerreko alderdiek irabazi zituzten. Bere kokapenari esker, Ebro ibarrean baitago, merkataritza-garapen handia izan zuen, ondoko merindadeetan eta komarketan eragin handikoa (Altaffaylla, 2018: 594; García Umbón, 1989; 223-226). Bestalde, Sakanako errealitatea oso bestelakoa zen, alde handiak baitzeuden haren 18 herrien artean<sup>5</sup>. Populazio aldetik, alde handia zegoen Ziordiko 200 biztanleen eta Altsasuko 3.500 biztanleen artean. Ideologia aldetik gauza bera esan dezakegu: Irurtzunen, jeltzaleak ziren nagusi; Uharte Arakilen, Ziordian, eta Altsasun, ezkerrek zuten botoen gehiengoa; Arbuzun, Arruazun zein Lakuntzan, tradizionalismoak zuten indarrak handiena; Urdiainen, Bakaikun, Iturmendin eta Olaztin, eskuinek irabazi zituzten 1936ko hauteskunde orokorrak, ezkerrek indar handia izan arren. Olazti eta Altsasu ziren herririk garatuena eta

2. Mikelarenaren aburuz (2015: 20-30), Nafarroan ezkerreko bozkatu zuten 1.000 pertsonetatik 81,7 edo 93,8 erailak izan ziren, iturriaren arabera. Bi kasuetan, estatu-mailako tasa altuena da. Nafarroan, 1.000 pertsonako 8,26 erailketa izan ziren; Erriberan, 14,77; Tuteran, 5,78; Sakanan, 4,95.

3. Altaffayllak (2018: 56) 3.634 hildako aipatzen ditu. 3.275 erailketa, eta beste 359 heriotza pairatutako tratu txarren eraginez.

4. Gertakari errepresiboak errepresioaren kuantifikazioan oinarritutako analisi baten oinarritzko unitatea dira. NOHDFk (Majuelo et al., 2021) horrela definitzen ditu: «Gertaera errepresiboak pertsona jakin batek pairatutakoak dira, leku eta data jakin batean [...] 1936ko uztailaren 18tik aurrera ezarri nahi izan zen erregimen berriaren aurkako jokabide jakin batzuk zigortzeko helburuarekin egin zirenak».

5. 18 herri ziren 1936an. Gaur egun, 14 herri dira.

industrializatuenak; Olazti, haren zementu-enpresaren eraginez, eta Altsasu, trenbide-enklabe oso garrantzitsua zelako, hango tren-geltokiak 178 langile zituen eta. Bi herrietan, baina Altsasun bereziki, langile-mugimenduak indar handia zuen; han CNT sindikatuak 100 kide zituen, Iruñean bezainbeste, eta 1934ko maiatzaren 1eko manifestaldian, Espainiako Gazteria Sozialisten (JJSS) idazkari nagusia zen Santiago Carrillok tokiko UGTk 600 kide zituela esan zuen. Langileriaren indarra izan zen Altsasu altxatuen helburu bihurtu zuen arrazoia, langileek 1932ko eta 1934ko ekintzen esperientzia gogoratzen baitzuten (Altaffaylla, 2018: 117, 119, 188-189, 198, 201, 205-206, 210-211, 213).

## 1.2. Trenbidea

Trenbide-sistemaren eraikuntza hastean, XIX. mendearen erdian, penintsulako erliebeak haren eraikuntza konplexuagotu zuen, eta bideak egoera txarrean egoteak ere ez zuen asko lagundu. Nahiz eta Europako beste herrialde batzuen garapen berdina ez izan, Espainiako garraio-sistemaren barnean berrikuntza handia ekarri zuen. Berrikuntza horrek ogibide berrien agerpena ekarri zuen, batzuk atzerriko langileek beteak, baina gehiengoak nekazari, artisau edo abeltzain ohiek beteak, hobeto ordaintzen baitzen (Bel, 2011; Gómez Mendoza, 1989). Guk ikertuko dugun *Compañía de Caminos de Hierro del Norte de España* enpresa estatu-mailako bi konpainia handietako bat zen. 1858an sortua, 3.814 burdinbide kilometrokudeatzen zituen, eta 41.035 langile zituen, 1935eko datuen arabera. Bestea *Compañía de Ferrocarriles de Madrid, Zaragoza y Alicante* (MZA) zen. Nafarroak, 1935eko datuen arabera, 223 burdinbide kilometro zituen, eta 1.252 langile. Kilometro bakoitzeko, probintziak 5,61 langile zituen, enpresaren batezbestekoaren erdia baino zerbait gehiago, 11,04 langilekoa. Geltoki garrantzitsuenak hauek ziren: Iruñekoa, 296 langilereekin; Castejóngoa, 262 langilerekin; bereziki garrantzitsua trenbide-lotunea izateagatik, Altsasukoa, 178 langilerekin, trenbide-lotunea ere, eta Tuterakoa, 91 langilerekin (Polo Muriel, 2015: 31-53).

Trenbidearen sektorea ez zegoen borroka sindikaletatik kanpo. Langileek egindako lan-baldintzen hobetzearen eskakizunez gain, enpresen beren zailtasun ekonomikoak zeuden, Gerra Handiak eta haren ondorio ekonomikoek areagotuak. Langileek grebak erabiltzen zituzten beren ahotsa entzunarazteko, presio modu bezala, eta jabeek, berriz, kanporaketak erabiltzen zituzten, erantzun eta kontrapresio bezala, langile gatazkatsuenegatik, 1912ko, 1917ko (Errepublika aurrekoak biak) eta 1934ko (Errepublika garaian, PRR eta CEDAen gobernuaren aurkakoa) grebetan gertatu bezala. Grebak bukatzen zirenean, orokorra zen enpresen jabeek greban parte hartutako langileen artean sailkapena egitea, lanera itzuliko zirenen eta ez zirenen artean bereiziz. Horretarako, depurazio-espeditentz baliatzen ziren (Plaza, 2016: 27-28). Garbiketaren hedapenaren ideia bat izateko, ikertzen ari garen enpresaren barnean, 1917ko grebaren ostean 4.123 langile izan ziren kanporatuak, 31.188 langileren artean. Hau da, langile guztien zortziren bat<sup>6</sup>. Depurazio-espeditentz ez ziren frankismoak asmatutako zerbait, askoz lehenagokoak ziren eta. Eta beranduago, depurazioaz arduratuko ziren auzitegi frankistak askotan

6. 1912ko eta 1917ko grebetan lanpostua galdu zuten langileek lanera itzultzeko aukera izan zuten Bigarren Errepublika aldarrikatu ondoren. 1934koan galdu zutenek, Fronte Popularrak irabazi ondoren. UZTARO 125, 37-55

espediente horietaz baliatuko ziren, langileen etorkizuna erabakitzen ari zirenean (Plaza, 2016: 25-32). Hobeto uler daiteke, ondorioz, espediente frankistek gerraren aurreko portaerak zehazteko zati bat edukitzea.

Aurrekari haien garrantzia erakusten duen adibide bat dugu. Benedicto Carro Carro, Olaztiko geltokiko langilea, 1934ko manifestariekin lankidetzan aritu zen<sup>7</sup>, diktadurak ireki zion espedienteari esker dakiguna. Benedictok bazekien, kolpistak iritsi bezain laster, arriskuan egongo zela, eta horregatik Errepublikaren lurraldera ihes egin zuen estatu-kolpearen egun berean. Espedienteak hau zioen: «Calificada la ideología de este agente y de su desafección a la Causa Nacional, pero no teniendo noticia de que durante el dominio rojo interviniese en hechos de carácter delictivo, de haber vivido, el juez instructor que suscribe tiene el honor de proponer a V. la READMISIÓN de este agente CON LA SANCIÓN siguiente: Una de las comprendidas entre la 1ª y la 9ª». Azkenean, nahiz eta Olaztiko alkatetzaren, Guardia Zibilaren eta Falangearen balorazio txarrak eduki, lan eta lansariaren denboraldiko kentzearekin zigortua izan zen «bakarrik» Benedicto<sup>8</sup>.

## 2. Depurazioak

### 2.1. Zer. Nork. Zertarako

Depurazioen definizioa 1936ko abenduaren 5eko Lege Dekretuak eman zuen modu oso esplizituan: «La Junta Técnica del Estado y demás organismos [...], dispondrán la *separación definitiva del servicio* de toda clase de empleados, que por su *conducta anterior o posterior* al Movimiento Nacional, *se consideren contrarios a éste* [...] Las empresas concesionarias de servicios públicos o Monopolios, *separarán* de sus puestos, a indicación del Presidente de la Junta Técnica del Estado, *a todo empleado que se considere incompatible, opuesto o peligroso para el Movimiento Nacional y a aquellos que no sirvan con eficacia o lealtad al presente régimen*. La Junta Técnica del Estado, formará en estos casos, y como base de la resolución de su Presidente, ligero *expediente o exposición de hechos o circunstancias justificativas* de la medida»<sup>9</sup>. Lan-depurazioak ez ziren berriak, Fernando VII.aren edo Isabel II.aren garaian gertatu baitziren. Berezitasuna da frankismoak depurazio horiek orokortu eta masifikatu egin zituela. Politikan, lanean, hezkuntzan... berdin zuen. Gizartearen eremu guztiak garbitzeko asmoa zuten agintari berriek, haien Estatu Berriaren sorkuntza oztopa zezakeen edonor baztertzeko. Gizartea eta garaiak menderatzeko, baliabide itzelak bideratu ziren (De Pablo Lobo, 2007: 204-205, Molinero & Ysàs, 1993: 33-38; Rodrigo Sánchez, 2001: 151-154)<sup>10</sup>.

7. Ikusi Majuelo, 1986, eta bereziki Majuelo, 1989.

8. Centro Documental de la Memoria Histórica (CDMH), *Archivo Ferroviario de la Depuración*. Benedicto Carro Carroren espediente pertsonala, 472/7025.

9. Decreto-Ley de 5 de diciembre de 1936 dictando reglas para la separación definitiva del servicio de toda clase de empleados. Boletín Oficial del Estado (BOE), 1936ko abenduaren 9a.

10. Lan batzuk aipatzearen, Josefina Cuestak koordinatutako *La depuración de los funcionarios bajo la dictadura franquista* eta Juan Carlos Bordes Muñozen *Correos en la España de Franco (1936- 1975)*. *Depuración de funcionarios y reorganización de los servicios postales*.

Hezkuntzari dagokionez, depurazio gogorrenetarikoa jasan zuen arloa (eta gehien ikertutako arloetakoa bat), José Manuel Casanova Gómezen eta María del Carmen Agullóren *Maestros valencianos*

Uztailaren 18ko estatu-kolpea ematean, altxatuek Defentsa Nazionalerako Junta eratu zuten, haien menpean zeuden lurraldeak kontrolatzeko ardura zuena. Kolpisten menpean 472 burdinbide kilometro gelditu ziren, zeinak, 1936ko abuztuaren 19ko dekretuaren bidez, Burdinbideen Zerbitzu Militarren Buruzagitzen pean gelditu ziren, burdinbidea militarizatu. Zertxobait lehenago, uztailaren 28an, Defentsa Nazionalerako Juntak gerra-egoera deklaratu zuen kontrolatzen zuen lurralde guztian, funtzionarioen garbiketarekin hasteko (Graham, 2005). Abuztuaren 13an, Defentsa Nazionalerako Juntaren Presidentetzak trenbideko langileen mobilizazio orokorra agindu zuen, adina eta jarduera militarra kontuan hartu gabe (Polo Muriel, 2015: 71-83). Depurazio-prozesuaren lehen oinarri legala 108/1936 Dekretuaren bidez izan zen, funtzionarioen eta langile publikoen depurazioaren hasiera ekarri zuena<sup>11</sup> (Álvaro Dueñas, 2006: 65). Dekretu horrek eragin sozial handia ekarri zuen, Estatu Berriaren izaera baztertzailerak islatuz (Alejandre García, 2008: 18-19). Dekretuak, goiburuan, edozein motatako langileen bereizketarako arauak ezartzen zituen, estatu-kolpearen aurreko edo bitarteko portaeraren ondorioz, haren aurkakotzat ikusten zirenak. Haren hirugarren artikuluan, ordea, hurrengoa: «Los funcionarios públicos y los de empresas subvencionadas por el Estado, la provincia o el municipio o concesionarias de servicios públicos, podrán ser corregidos, suspendidos y destituidos de los cargos que desempeñen cuando aconsejen tales medidas sus actuaciones antipatrióticas o contrarias al Movimiento Nacional».

Bi dekretu horiek trenbideko langileen aurkako errepresioaren instituzionalizazioaren lehenengo pausoak izan ziren. Haien ondorioz, enpresetako langileriaren kokapen politiko eta ideologikoa jakiteko helburuarekin egindako txostenak areagotu ziren. Txostenen gehiengoa Trenbideko Buruzagitza Militarrek eskatzen zuen, depurazio-prozesua bideratzen zuen eta. Enpresek txostenen lau kopia egiteko agindua zuten. Lehenengoa, Trenbideko Buruzagitza Militarrek gordetzeko; bigarrena, Trenbide Zerbitzu Nazionalarentzat; hirugarrena, udal bakoitzean kokatutako Estatu-komisariotzari emateko; laugarrena, enpresak berak gordetzeko. Geroago, Trenbide Zerbitzu Nazionalak enpresen gainean zituen konpeten tziak oraindik gehiago handitu zituen, Estatu-komisariotzari emateko. 1937ko urriaren 15eko Aginduaren ondoren<sup>12</sup>. Horrek enpresei langile berriak zuzenki kontratatzea debekatzeko zien, orduz gero Trenbideko Buruzagitza Militarren ardura izango baitzen. Helburua zen bakarrik erregimenarekiko atxikimendu osoa zuten langileen kontratazioa. Zergatik egin zen hori? Lehen begi-kolpean, gerra bitartean kontratatutako langileria osoa zalantza kanpo zegoela, baina errealtatea konplexuagoa zen. Enpresen zuzendariak, militarrek eta Segurtasun Zerbitzu Nazionalak bazekiten trenbideetako langileriaren zati handi bat ezkerrekoa zela edo izan zela, eta horregatik, haien gainean arreta

---

*bajo el franquismo. La depuración del magisterio; Maitane Estolaza Esnalén El garrote de la depuración. Maestros vascos en la Guerra Civil y el primer franquismo (1936-1945); eta Óscar Rodríguez Barreiraren Pupitres Vacíos. La Escuela Rural de Postguerra, Almería 1939-1953.*

11. Decreto número 108 de 13 de septiembre de 1936 declarando fuera de la Ley a los partidos o agrupaciones políticas que desde la convocatoria de las elecciones celebradas el 16 de febrero último han integrado el llamado Frente Popular, señalándose las medidas y sanciones que habrán de adoptarse tanto sobre aquéllas como sobre los funcionarios públicos y los de empresas subvencionadas por el Estado. BOE, 1936ko irailaren 16a.

12. 1939ko irailaren 1eko Dekretuak desegin zuen, enpresa bakoitzeko Zuzendaritza Batzordeei izendapenak, maila igotzeak eta depurazioak egiteko ardura emanaz.

handia jartzeko beharra zegoen, sabotajea saihesteko, hori baitzen haien kezka nagusia (Polo Muriel, 2015: 84-85).

Armada frankistak Bartzelona okupatzean, bi lege berrik errepresioa behin betiko instituzionalizatu zuten: lehenengoa 1939ko otsailaren 9ko Legea, Ardura Politikoei buruzkoa<sup>13</sup>, izan zen, 1934ko urriaren 1aren eta 1936ko uztailaren 18aren arteko ekintza guztiak hartzen zituen, zeinek, auzitegi frankisten iritziz, ordenaren hausturan lagundu zuten<sup>14</sup>. Bigarrena 1939ko otsailaren 10eko Legea, funtzionario publikoen depuraziorako arauak ezarriz<sup>15</sup> izan zen, funtzionario guztiak ikertzeko eta erregimenaren aurkakoak kanporatzeko. Tusellen esanetan, lege horiek eta Katalunia okupatu ostean argitaratutako beste hainbestek «kanpamendu» Estatutik «Estatu Berri» frankistarako trantsizioa ekarri zuten (Tusell, 1988). «Zona askatuan» bizi ziren funtzionario guztiek, zortzi eguneko epearen barnean, zinpeko aitorten bat bete behar zuten, gerraren aurretik eta gerra bitartean izandako portaerari eta egindako ekintzei buruzko hainbat galdera erantzunez. Horien artean, lanbidea eta lantokia 1936ko uztailaren 18an; «Mugimendu Nazionalari» atxikitako eguna, atxikimendu hori egitekotan, edo «Gobernu Marxistari» edo haren erakundeetako bati egin bazen, nahita edo behartuta; 1936ko uztailaren 18tik aurrera egindako zerbitzuak; parte izandako alderdi politikoak edo sindikatuak, sarrera- edo uzte-datekin; eta esandakoa ziurta zezaketen lekukoak (Polo Muriel, 2015: 87-88). Horren froga garbia guk ikertutako dokumentazioaren gehiengoa 1939koa edo ondorengoa izatea da, depurazioek orokorrean, eta trenbidekoak zehazki, izandako aurrerapauso handiaren erakusgarri.

Bigarren legea burdinbideko sektorerara hedatu zen 1939ko otsailaren 27ko Dekretuaren bidez<sup>16</sup>, zeinak depurazioaren ardura enpresei ematen zien, lan horretarako auzitegi propioak sortuz. Prozesu haiek kontu handiz bideratzen ziren: enpresa bakoitzeko instantziek automatikoki lan egiten zuten, espedienteak aginte militarri, alde batetik, eta Trenbide, Tranbia eta Errepideko Garraioaren Zuzendaritza Nagusiari, bestetik, bidaliz. Bigarrena zen, aginte zibilaren barnean, depurazioen emaitzei buruz azken hitza zuen erakundea. Hainbat aspekturen definiziorik ezak depurazioaren hasiera oztopatu zuen, zeina benetan 1939ko abenduaren 1ean hasi baitzen, zigor-eskala berri bat onartu zenean, aurretik ezarritako zazpi zigorrei beste hiru gehituz<sup>17</sup> (Polo Muriel, 2015: 87-90, 186-187). Lan itzel hura aurrera eramaten

---

13. Ley de 9 de Febrero de Responsabilidades Políticas, BOE, 1939ko otsailaren 13a.

14. Zehazki, «a agravar la subversión de todo orden de que se hizo víctima a España y de aquellas otras que a partir de la segunda de dichas fechas, se hayan opuesto o se opongan al Movimiento Nacional con actos concreto o con pasividad grave» zioen.

15. Ley de 10 de febrero de 1939 fijando normas para la depuración de funcionarios públicos. BOE, 1939ko otsailaren 14a.

16. Decreto de 27 de febrero de 1939 sobre depuración de funcionarios de Corporaciones y Empresas concesionarias de Servicios públicos. BOE, 1939ko otsailaren 28a.

17. Hasieran ezarritako zigorrak  *censura escrita, suspensión de empleo y sueldo, traslado de lugar o servicio, apercibimiento, suspensión o demora de ascensos por tiempo determinado, descenso de categoría o sueldo, eta separación definitiva del empleo* ziren. Zigor horiek guztiek zigor gehigarriak ekar zitezaketen haiekin. Eskala berriak  *jubilación forzosa, destitución o separación simple, sin pérdida de derechos pasivos, eta separación con pérdida de todos los derechos* ezarri zituen, baita beste zigor gehigarri batzuk ere.

Guardia Zibilaren, Poliziaren, Falangearen eta udalen informatzaile-sare hedatu batek lagundu zuen (Muñoz Rubio, 1995).

### 3. Espedienteen ikerketa

#### 3.1. Tuterako espedienteak

Zati honetan, gure ikerketaren emaitzak islatuko ditugu. Gogora dezagun Tuterako eta Sakanako<sup>18</sup> geltokietako langileen depurazio-espedienteen ikerketa dela gure helburua, ahal bezain modu zabalenean eta sakonenean. Geltoki bakoitzeko langile kopurua ikertuko dugu, eta horrekin batera, haien espedienteen emaitzak, langilariaren militantzia politiko eta sindikala, eta pairatu zituzten ekintza errepresiboak ere<sup>19</sup>. Ekintza horiek bereizi egingo ditugu, alde batetik, lanbidearekin zerikusia zuten ekintzetan (lan zigor guztiak), eta, bestetik, lanbidearekin zerikusia ez zuten ekintzetan (atxiloketak, erailketak, etab.). Bestalde, espedienteen emaitzei buruz hitz egitean, bost emaitza aurkituko ditugula argitu nahi dugu: zigorrik gabeko berronartzea eta zigorrarekin berronartzea (gerra bitartean egin bazen), zigorrik gabeko berrezartzea eta zigorrarekin berrezartzea (gerra ostean egin bazen), eta kanporaketak, «lanetik behin betiko bereizketak» (*separación definitiva del empleo*) bezala ezagunak, modu nahiko eufemistiko batean.

Tuterakoekin hasiko gara, 91 langile zituen tren-geltokiarekin. Haietatik 71 zigorrik gabe berronartuak izan ziren, 6 zigorrarekin berronartuak izan ziren, 9 zigorrik gabe berrezarriak izan ziren, langile bakar bat zigorrarekin berrezarria izan zen, eta azkeneko 4 langileak lanetik kanporatuak izan ziren. Kasualitatez, kanporatutako 4 langile horiek indar frankistek erail zituzten; hilda zeudenez, ezin ziren lanera itzuli, eta horregatik kanporatuak izan ziren. Ikertu ditugun espedienteen artean, 16 militantzia politiko eta sindikal ezagun aurkitu ditugu, guztizkoaren % 19.05: guk dakigula, 4 langile CNTko kideak ziren, 7 UGTkoak, 2 PSOEkoak, 1 Tuterako Talde Errepublikanokoa (ideologia ezberdineko errepublikazaleak elkartzeko helburua zuen tokian tokiko elkarte politikoa), 1 PCEkoa, eta 1 PCEko eta CNTko kide zen aldi berean<sup>20</sup>.

Militantzia ezagunik gabeko langileen artean, José Alcubierre Olivak, Aurelio Yagüe Rodríguezek eta Miguel Pastor Quizañosek lanaren eta lansariaren denboraldirako kentzea zein atxiloketa pairatu zituzten. José Abadía Laglerak, edo Haglerak, eta Antonio López Ramírezek atxiloketa ere jasan behar izan zuten. Muturreneko kasua Ramón Falcón Mateorena izan zen, «ezker muturrekoa» bezala deskribatua, Cascanten eraila izan zena 1936ko egun zehaztugabe batean.

---

18. Altsasu salbu. Badakizkigu hango geltokiak zituen langileen kopurua eta langile horien espedienteen emaitzak (zigor zehatzak ez, halaber), baina ez dugu dokumentazioa ikertzeko aukerarik izan. Beraz, ez militantziei buruz ezta zigor zehatzei buruz ere hitz egitean, herri hori ez dugu barne hartuko.

19. CDMH, *Archivo Ferroviario de la Depuración*. Tuterako geltokiko espedienteak.

20. CDMH, *Archivo Ferroviario de la Depuración*. José Alcubierre Olivaren espediente pertsonala, 547/210. Aurelio Yagüe Rodríguezren espediente pertsonala, 547/211. José Abadía Laglera (Haglera) ren espediente pertsonala, 279/10288. Ramón Falcón Mateoren espediente pertsonala, 519/3334, eta Nafarroako Oroimen Historikoaren Dokumentu Funtseko (FDMHN-NOHDF) fitxa, ID 1289.



Militantzia ezaguna zuten langileen artean, gehienek bakarrik espedientearen irekiera jasan behar izan zuten, zigorrik gabe berronartuak edo berrezarriak izateko<sup>21</sup>. Hori izan zen León García Menaren, Enrique Cucala Brachaten, Agustín Arreaga Lecumberriren, María Eugenia Garay Garijoren, Vicente Grocín Lergaren, Teófilo López Lasheraren eta Esteban Pérez Pérezen kasua, zazpiak UGTko militanteak<sup>22</sup>. Constancio Lafuente Medranori, PSOEko kide, Ramón Rodríguez Rodríguezi, CNTko kide, eta Domingo Vizcarra Pardori, Tuterako Elkarte Errepublikanoko kide, gauza bera gertatu zitzaizen<sup>23</sup> Dena den, errepresio bortitzaren kasu ugari egon ziren militantzia ezaguna zuten geltoki horretako langileen artean. Pedro Quintilla Abós, CNTko kide, bortxazko lekualdaketa batekin zigortua izan zen, Lleidak geltokitik<sup>24</sup> Alcalá de Xiverteko geltokira, Castellóneko probintzian, baita bost urtez beste geltokietara borondatezko lekualdaketa eskatzeko desgaitzearekin ere<sup>25</sup>. PCEko eta CNTko militante bikoitza zen Leoncio Castillejo Barea 1936ko azaroaren 12an erail zuten, eta Balsafordako (Errege Bardean) hobira botata<sup>26</sup>. Luis Garijo Escribano, CNTko militantea, Tuteran atxilotua izan zen, presondegian lan egitera behartua izan, hiri berean eraila izan zen, 1936ko azaroaren 12an ere, eta lanetik kanporatua izan zen 1942ko martxoaren 28an, haren espediente behin bukatuta. Eugenio Tutor Lozano, PSOEko militantea eta Tuterako Udaleko zinegotzia, kargugabetua izan zen 1936ko uztailaren 19an, urte bereko azaroaren 14an erail zuten eta Balsafordako hobian lurperatu<sup>27</sup>.

### 3.2. Sakanako espedienteak

Zonaz aldatuz, Sakanako trenbideko langileak honela bereizten ziren: 14 Irurtzunen; 4 Irañetan; 8 Uharte Arakilen; 2 Lakuntzan; 1 Arruazun; 3 Arbizun; 14 Etxarri Aranatzen; 3 Bakaikun; 3 Iturmendin; 20 Olaztin; 178 Altsasun. Langile horiek guztiak zigorrik gabe berronartuak izan ziren, salbuespen batzuekin, halere: Irurtzunen, langile bat zigorrik gabe berrezarria izan zen; Olaztin, 9 langile zigorrik gabe berronartuak izan ziren, 4 zigorrik gabe berrezarriak, 6 zigorrarekin

---

21. Berez, depurazio-espedientearen irekiera ez da ekintza errepresibo bat, Nafarroako Oroimen Historikoaren Dokumentazio Funtsak esandakoaren arabera, nahitaez egin beharreko prozesua baitzen. Horregatik ez dugu ekintza errepresibotzat hartuko, nahiz eta militantziak aipatzeko erabilgarria izan.

22. CDMH, *Archivo Ferroviario de la Depuración*. León García Menaren espediente pertsonala, 567/3713. Enrique Cucala Brachaten espediente pertsonala, 573/7552. Agustín Arreaga Lecumberriren espediente pertsonala, 577/9818. María Eugenia Garay Garijoren espediente pertsonala, 578/10682. Vicente Grocín Lergaren espediente pertsonala, 579/11650. Teófilo López Lasheraren espediente pertsonala, 579/11702. Esteban Pérez Pérezen espediente pertsonala, 579/11703.

23. CDMH, *Archivo Ferroviario de la Depuración*. Constancio Lafuente Medranoren espediente pertsonala, 576/9688. Ramón Rodríguez Rodríguez en espediente pertsonala, 579/11704. Domingo Vizcarra Pardoren espediente pertsonala, 579/11702.

24. Tuterako geltokiko langilea zen Pedro Quintillá Abós, baina estatu-kolpea ematean Lleidan zegoen, eta hor gelditu zen lan egiten gerra bukatu arte.

25. CDMH, *Archivo Ferroviario de la Depuración*. Pedro Quintilla Abósen espediente pertsonala, 391/3893.

26. Leoncio Castillejo Barea gorpua azkenean Balsafordako hobotik atera eta Tuterako hilerrian lurperatu zuten, 1979ko martxoaren 19an. Eugenio Tutor Lozanoren eta Luis Garijo Escribanoren gorpuei buruz, momentuz, ez dakigu ezer.

27. CDMH, *Archivo Ferroviario de la Depuración*. Luis Garijo Escribanoren espediente pertsonala, 521/3642, eta NOHDFeko fitxa, ID 1556. Eugenio Tutor Lozanoren NOHDFeko fitxa, ID 3951.

berrezarriak, eta langile bakar bat lanetik kanporatua izan zen; Altsasun, 85 langile zigorrik gabe berronartuak izan ziren, 3 zigorrarekin berronartuak izan ziren, 6 zigorrik gabe berrezarriak izan ziren, 36 zigorrarekin berrezarriak izan ziren, eta 48 lanetik kanporatuak izan ziren. Ikertutako espedienteen arabera, 14 langilek militantzia ezaguna zuten: langile bat PRRko kide zen, 3 PSOekoak, 5 UGTkoak, 2 CNTkoak eta 3 EAJkoak<sup>28</sup>.

Militantzia ezagunik gabeko langileen artean, gure ezagun Benedicto Carro Carro dugu, «oso ezkertiarra» bezala definitua. Lehen esan bezala, Benedictok Olaztitik alde egin zuen, bazekielako altxatuak haren bila joango zirela 1934ko iraultzaileekin lankidetzan aritu izateagatik. Baina ihesaldia eta gero, ez zen ezer gehiago jakin hari buruz. Dokumentuen arabera, hilda zegoela jakin zuten bakarrik Benedictoren anaia haren etxera joan zenean, altzairuak biltzeko, zendu baitzen. Halaber, lanaren eta lansariaren denboraldirako kentzearekin zigortua izan zen hildakoa<sup>29</sup>. Olaztitik kanpo, Antonio Rueda Lallave, Uharte Arakileko geltokiko langilea, Iruñeko udal-presondegian atxilotua izan zen uztailaren 21aren eta 30aren artean, eta Luis Imbert Lucas, Etxarri Aranatzeko geltoki-zuzendaria, leku eta egun ezezagunetan eraila<sup>30</sup>.

Muturreneko kasua, eta aldi berean agintari frankistek langile gutxi batzuei leporatutako karguen adibide ona, Gabriel Sáez de Cortázar y Ruiz de Austínena da, Olaztiko geltokiko langilea, berarekin batera bere familiak pairatu baitzuen errepresio-makineria frankistaren indarra. Dokumentuek oso ezkertiarra eta Fronte Popularraren oso gogotsu bezala deskribatzen dute, 1936ko uztailaren 19an Olaztitik alde egitera eraman zuena. Haren bidaia Ontinyenten (Valentziako probintzian) bukatu zen, 1937ko urrian. Gabrielen aurka zazpi kargu aurkeztu ziren: PCEko kide izatea<sup>31</sup>; Ontinyenteko bizilagun batzuk *salud* hitzarekin agurtzera behartu, *adiós* hitzaren orde; ebakuatuen ordezkariaren kargua okupatu izana; armada kolpista eta haren jeneralak iraintzea; Donostian armekin guardia egitea; eta zona errepublikanora ihes egitea estatu-kolpearen ostean. 1940ko ekainaren 5ean, zigorrarekin berrezarria izan zen: maila bateko kategoria jaitea, bost urtez azterketetan edo beste proba batzuetan parte hartzeko gaitasunik gabe uztea, lanpostuz edo egoeraz aldatzeko edo lanpostuz igotzeko, Boo de Piélagoseko (Kantabria) geltokira bortxaz lekualdatua izatea, bost urtez beste egoitza batzuk eskuratzeko gaitasunik gabe uztea, eta borondatezko erretirorako eskubidea etetea bost urtez<sup>32</sup>. Gabriel Sáez de Cortázar, lana utzi eta hilabete batzuetara, 1936ko urriaren 2an, Rufina Martínez Martínez eta María Sáez de Cortázar y Martínez, emaztea eta alaba, hurrenez hurren, Olaztitik kanporatuak izan ziren. Biek Gasteizen bukatu zuten, eta badakigu Mariak Ricardo de Anitua lantegi mobilizatuan lan egiten zuela 1937ko apirilaren 13tik aurrera. Rufinari Fronte Popularrerikiko sinpatiak izatea,

---

28. CDMH, *Archivo Ferroviario de la Depuración*. Sakanako geltokietako espedienteak.

29. CDMH, *Archivo Ferroviario de la Depuración*. Benedicto Carro Carroren espediente pertsonala, 472/7025.

30. NOHDF, Antonio Rueda Lallaveren fitxa, ID 13546. Luis Imbert Lucasen NOHDFeko fitxa, ID 1942.

31. Guardia Zibilak bakarrik egindako akusazioa. Horregatik ez dugu militantzien zerrendan aipatu.

32. CDMH, *Archivo Ferroviario de la Depuración*. Gabriel Sáez de Cortázar y Ruiz de Austínen espediente pertsonala, 357/2433.

«iraultza gorriarekiko» sinpatia erakustea, haren familia horrekin elkarlanean aritu baitzen, eta «kausa nazionalaren» aurkakoa izatea leporatu zioten. Azkenean, Rufina eta María zigorrik gabe berrezarriak izan ziren<sup>33</sup>. Faustino Sáez de Cortázar y Martínezi buruz, Gabrielen eta Rufinaren semea, badakigu lanetik kanporatua izan zela eta UGTko kidea zela (Aranguren, 2017: 28), baina ez dugu haren espedientea ikertzeko aukerarik izan<sup>34</sup>.

Militantzia ezaguna zuten langileen artean, berriro ere, gehiengoak bakarrik espedientearen irekiera jasan behar izan zuen, bukatzerakoan berronartuz edo berrezarritik. Baina berriro ere, horrek ez du esan nahi errepresiorik egon ez zenik, ikusiko dugun bezala. Abundio Gutiérrez Samperiok (Uharte Arakil), Pancraccio Caballero García (Irurtzun), Francisco Mendiá Múgicak (Olazti) eta Fernando Recarte Lacunak (Arakil), laurak UGTko kideak, espedientearen irekiera baino ez zuten jasan, eta zigorrik gabe berrezarriak izan ziren<sup>35</sup>. PRRko militante zen José Rodríguez Álvarez (Irurtzun) kasua berdina izan zen, baita Víctor Aizcorbe Zubiria (Arakil) jeltzalearena eta Francisco Recarte Gómez sozialistarena ere<sup>36</sup>. Pedro García Díaz ere (Irurtzun), CNTko kidea, zigorrik gabe berrezarria izan zen, nahiz eta oso aurrekari txarrak izan: ezkerreko pertonekin bilerak, gerra bitartean egindako propaganda-ekintzak, istilu publikoak erreketekin, eta ihesaldiak, hasieran Irunera eta gero Kataluniara. Hortik oso gaixo itzuli eta espedientea ireki aurretik hil zen<sup>37</sup>. Miguel Flores Estancaren eta Pedro Yábar Lacunzaren kasuak, biak jeltzaleak eta Arbizun langileak, askoz bortitzagoak izan ziren: Miguel Etxaurin eraila izan zen 1936ko azaroaren 7an, eta Pedro, zinegotzia ere izan zena Arbizun 1931-1936 bitartean, kargugabetua izan zen, gero Oskiako basoan eraila izateko 1936ko uztailaren 28an<sup>38</sup>. Rufino Vicuña Jacak (Etxarri Aranatz), PSOEko militantea, bere etxetik alde egin behar izan zuen zona errepublikanora iritsi arte, eta hor Errepublikako Herri Armadan sartu zen. Balmasedan hil zen, Bizkaiko frontean, 1937ko egun zehaztugabe batean. Zigorrik gabe berrezarria izan zen 1941eko abenduaren 8an. Alderdiko kide ere zen Andrés González Lorente (Uharte Arakil), Iruñean espetxeratua izan zen 1936ko uztailaren 18aren eta abuztuaren 31ren arteko aldi zehaztugabe batean, eta abuztuan eraila izan zen. Haren gorpua Raso

---

33. CDMH, *Archivo Ferroviario de la Depuración*. Rufina Martínez Martínezen espediente pertsonala, 245/7795. María Sáez de Cortázar y Martínezen espediente pertsonala, 185/4018.

34. Bere Gradu Amaierako Lanean, Mirari Aranguren ek esan zuen Faustino Sáez de Cortázar langileari buruzko informazioa aurkitu zuela, Nafarroako Oroimen Historikoaren Dokumentu Funtsean bilaketa eginez. Aldi berean, Faustinoaren espedientearen zenbakia ematen du, 3.562. Hala ere, ez dugu Mirarik esandako fitxategia aurkitu Dokumentu Funtsean, eta Faustinoaren izena aipatzen duen dokumentu bakarra 6.020 espedientearen barnean dago, aipamen bat baino ez dena.

35. CDMH, *Archivo Ferroviario de la Depuración*. Abundio Gutiérrez Samperioren espediente pertsonala, 572/6995. Pancraccio Caballero Garcíaen espediente pertsonala, 577/9815. Francisco Mendiá Múgicaren espediente pertsonala, 560/937. Fernando Recarte Lacunaren espediente pertsonala, 579/11727.

36. CDMH, *Archivo Ferroviario de la Depuración*. José Rodríguez Álvarez en espediente pertsonala, 573/7547. Víctor Aizcorbe Zubiriaren espediente pertsonala, 579/11136. Francisco Recarte Gómez en espediente pertsonala, 561/1737.

37. CDMH, *Archivo Ferroviario de la Depuración*. Pedro García Díazen espediente pertsonala, 583/14252.

38. Miguel Flores Estanca (Estanga)ren NOHDFeko fitxa, ID 1358. Pedro Yábar Lacunzaren NOHDFeko fitxa, ID 4345.

leizera botata izan zen, Urbasako mendilerroan. 1942ko martxoaren 25ean zigorrik gabe berrezarria izan zen<sup>39</sup>.

Hala ere, ekintza errepresiboen zerrendarik luzeena pairatu zuen langilea izatearen ohore zalantzagarrria Alejandro Celaya Zabalorena da. Olaztiko geltokiko langilea eta Altsasuko CNTko kidea, etxetik alde egin zuen estatu-kolpearen egun berean, zona errepublikanora mugituz, geroago armada frankistak atxilotu eta espetxe ezezagun batean bukatu. Hogeita seigarren Langileen Batailoira bidalia izan zen 1937ko urriaren 1aren eta 1939ko maiatzaren 27aren artean, edo 1939ko urriaren 15aren eta abenduaren 29aren artean. Azkenik, 1940ko azaroaren 23an Alejandro zigorrarekin berrezarria izan zen: Sabadelleko geltokira bortxazko lekualdaketa, bost urtez beste egoitza batzuk eskuratzeko gaitasunik gabe uztea, bost urtez azterketetan edo beste proba batzuetan parte hartzeko gaitasunik gabe uztea, lanpostuz edo egoeraz aldatzeko edo lanpostuz igotzeko, eta bost urtez aginte-, burutza- edo zuzendaritza-karguak betetzeko gaitasunik gabe uztea<sup>40</sup>.

## 4. Zonen konparaketa

### 4.1. Langileak

Hasieran esan bezala, lan honen asmoetako bat da etorkizuneko ikerketetarako eta udalen konparaketarako abiapuntua izatea, bai Nafarroan bai estatu-mailan. Horretarako, ikertutako zonak hiru taldetan bereizi ditugu: Tuterako, Sakana, eta Olazti. Azken udal hori bereiztearen arrazoia lehen aipatutako Mirari Arangurenen lana da, espedienteen analisi sakona egin baitzuen, gure metodologiara eta helburuetara moldatzen dena.

Has gaitezen emakume langileen kopuruarekin. Trenbide-geltokietako langileen gehiengoa gizonak ziren, ikertutako 175 pertsonen artean bakarrik 22 emakume aurkitu baititugu, 153 gizonekin alderatuta. Tuterako geltokian, 85 gizonekin alderatuz, 6 emakumek soilik egiten zuten lan. Sakanan, aldiz, geltokiz geltoki errealitatea oso aldakorra zen; Irurtzunen (14), Arruazun (1), Arbizun (3) eta Lakuntzan (3) bakarrik gizonek lan egiten zuten; Uharteko Arakilen (2 emakume eta 6 gizon), Arakilen (4 emakume eta 8 gizon), Iturmendin (emakume bat eta 2 gizon) eta Etxarri Aranatzen (3 emakume eta 11 gizon), aldiz, emakumek lan egiten zuten ere, nahiz eta gizonak baino askoz gutxiago izan. Parekotasuna zegoen geltoki bakarra Irañetakoa zen, 2 gizonek eta 2 emakumek lan egiten baitzuten. Bestalde, Olaztin 4 emakumek eta 16 gizonek lan egiten zuten. Halere, ikertutako 19 emakume zaindaria ziren, beste 2 saltzaileak ziren, eta azkena garbitzailea zen<sup>41</sup>. Emakumek, gutxiengoa izateaz gain, kualifikazio gutxieneko lanpostuak zituzten, tenporaltasun-tasa altuagoa egoteko aukera ematen zutenak.

---

39. CDMH, *Archivo Ferroviario de la Depuración*. Rufino Vicuña Jacaren espediente pertsonala, 578/10902, eta NOHDFeko fitxa, ID 4096. Andrés González Lorenteren espediente pertsonala, 583/14273, eta NOHDFeko fitxa, ID 1675.

40. CDMH, *Archivo Ferroviario de la Depuración*. Alejandro Celaya Zabaloren espediente pertsonala, 452/5508.

41. CDMH, *Archivo Ferroviario de la Depuración*. Tuterako eta Sakanako geltokietako espedienteak.

## 4.2. Espedienteen emaitzak

Konparatuko dugun hurrengo aspektua espedienteen emaitzak izango dira. Aipatu bezala, prozesuen gehiengoak zigorrik gabeko berronartze edo berrezartze batekin bukatzen zuen. Hori gertatu zitzaien Tuterako 80 langileri eta Sakanako langile guztiei. Baina bai Olaztik bai Altsasuk, zonako beste herrekin konparatuta, kopuru ezberdinak ematen dituzte: lehenengoan, 13 langile zigorrik gabe itzuli ziren lanera, 6 zigorrarekin, eta 1 kanporatua izan zen; bigarrenean, 91, 39 eta 48, hurrenez hurren<sup>42</sup>. Sakanan orokorrean, udal-barrutien gehiengoak Gipuzkoarekin muga egiten du, eta bi herri horietan zehazki, populazioaren zati handi batek alde egin zuen, estatu-kolpearen, eta horrekin armada altxatuaren aurrerapenaren, berriak iristen ziren bitartean. Horregatik, espedienteetan aurkitutako ihesaldi guztiak Sakanan gertatu ziren, gehienbat Olaztin, langile-mugimenduak hor zuen indarrarengatik. Altsasuko espedienteak ikertzeko aukerarik izan ez dugun arren, badakigu pertsona ugari ihes egin zutela. Tuteran, kasurik onenean lurralde errepublikanotik dozenaka kilometrotara zegoenez, ihesaldi-saiakerarik ez dugu aurkitu.

Espedienteen analisiarekin amaitzeko, lanbidearen kualifikazioaren eta isunen arteko erlazioa aipatzea ezinbestekoa da. Enpresa-logika dela eta, trenbide-konpainiei ez zitzaien komeni langile kualifikatuak galtzea. Baina hori frogatzen duen adibiderik ez dugu aurkitu dokumentuetan. Esaterako, guztira zigortutako 9 langileen artean, 1 orratz-zaindaria zen, 1 langilea, eta 3 zerbitzari osagarriak edo kualifikazio gutxiko lanbideak. Baina motorista bat, langilezainorde bat, faktore finko bat eta faktore baimendu bat ere, kualifikazio altuagoko ogibideak, zigortuak izan ziren<sup>43</sup>. Ez da salbuespen bat, behin baino gehiagotan gauza bera ondorioztatu delako (Aranguren, 2017: 27; Polo Muriel, 2015, 355). Dena den, trenbide-sektorean lanbide espezializatuagoak zituzten langileek zigor eta kanporaketa gutxiago pairatu zituzten, Kataluniako eta Euskadiko kasuetan frogatu den bezala (Moliner eta Ysás, 1985: 102-106; Garmendia eta González Portilla, 1993).

## 4.3. Militantzia politiko eta sindikal ezagunak

Esan bezala, Tuterako geltokiko 16 langilek militantzia politiko edo sindikal ezaguna zuten: haietako 7 UGTko kide ziren, 2 PSOEkoak, 1 Tuterako Elkarte Errepublikanokoa, 4 CNTkoak, 1 PCEkoa, eta 1 PCEko eta CNTko kidea aldi berean. Hemen, 9 lan-zigor aurkitu ditugu: 4 kanporaketa, bortxazko lekualdaketa bat, lanaren eta lansariaren 3 denboraldiko kentze, eta enpresaren onura sozialen ukapen bat. Ikertutako 84 langileetatik bakarrik 16k zuten militantzia ezagun bat, guttizkoaren % 19,05, baina 9 lan-zigorretatik 4 pairatu zituzten, guttizkoaren % 44,44. Hau da, proportzionalki jasan beharko zutenaren bikoitza baino gehiago. Sakanan, ordea, langile bat PRRko kide zen, 3 PSOEkoak, 5 UGTkoak, 2 CNTkoak eta 3 EAJkoak. Olaztin, berriz, CNTko kide baten eta UGTko beste kide baten berri dugu. Bien artean, 5 lan-zigor aurkitu ditugu: lanaren eta lansariaren denboraldirako kentze bat, 2 lekualdatze behartu eta enpresaren onura sozialen 2 ukatze. Ikertutako

---

42. *Idem.*

43. *Idem.*

81 langileen artean bakarrik 14k zuten militantzia ezagun bat, guztizkoaren % 17,28. Baina langile horiek, 5 lan-zigorretatik, 2 pairatu zituzten, guztizkoaren % 40<sup>44</sup>. Berrito ere, proportzionalki jasan beharko zutenaren bikoitza baino gehiago, militantzia ezagunen eta lan-errepresioaren arteko lotura frogatzen duena.

Adibide bezala, berriro erabiliko dugu Alejandro Celaya Zabaloren kasua. Langile Batailoitik lizentziatu ondoren, depurazio-espeditente bat ireki zitzaion. Enpresak «prestó buenos servicios propios de su cargo en su antigua residencia de Olazagutía» esan zuen, inolaz ere Alejandoren ihesaldia edo militantzia aipatuz. Guardia Zibilak eta alkatetzak askoz gehiago sakondu zuten gai horietan. Esaterako, lehenengoaren txostenak esandakoaren arabera, «era afiliado en la agrupación de la C.N.T. siendo 2.º vocal del citado Comité [...] El día 23 de Julio de 1936 [...] no acudió al trabajo ausentándose de esta localidad, que más tarde se tuvo noticia lo hizo al campo enemigo». Altsasuko alkatetzak, Alejandro hor bizi baitzen, hurrengo idatzi zuen: «Este individuo era elemento de izquierdas, sin que figurase como destacado, irreligioso; desconociendo si estaba o no afiliado a algún partido izquierdista [...]; despues (*sic*) de publicado el Bando declarando el estado de guerra, huyo voluntariamente a campo enemigo, por cuyo motivo debe considerarsele incurso en el delito de auxilio a la rebelion y de conducta contraria a nuestra Amada causa [...] y se le considera desafecto, por no dar muestras de arrepentimiento». Horren ostean, hiru kargu leporatu zitzaizkion: «Ser de ideología izquierdista afiliado a la Federación de Industria Ferroviaria afecta a la C.N.T. con anterioridad al Glorioso Movimiento Nacional», «Pertener al Comité de la C.N.T como segundo Vocal, gran entusiasta de los ideales marxistas, acudiendo a un mitin sindicalista que tuvo lugar en Zaragoza 25 días antes del Movimiento Nacional», eta «Abandonó el servicio al 4.º día del Alzamiento, ausentándose de la localidad pasandose a campo enemigo donde fue hecho prisionero por las tropas nacionales». Bigarren kargua ukatu zuen, eta hirugarrena onartu<sup>45</sup>. Nahiz eta lanean zein Batailoian izandako jarrera ona izan, Alejandoren aurrekariak, militantziak bereziki, lanean oso zigor gogor batekin berrezartzea ekarri zioten.

#### 4.4. Agente errepresiboen balorazioak

Balorazioei dagokienez, enpresak eta Guardia Zibilak prozesu ia guztietan parte hartu zuten, 162tik 154 eta 153tan, hurrenez hurren. Alkatetza ezberdinek eta FET y de las JONSEk, berriz, bakarrik 14 eta 12 prozesutan, hurrenez hurren, parte hartu zuten. Enpresak Tuteran ikertutako 80 prozesutik 75etan parte hartu zuen, kasu guztietan langileei buruzko balorazio onak emanez; Sakanan, parte hartu zuen 64 prozesuetatik, 56tan balorazio onak egin zituen, 6tan balorazio kontrajarria<sup>46</sup> egin zuen, 2 kasutan ez zuen iritzirik eman informazio falta zela eta, eta 2 kasutan ere balorazio txarrak eman zituen. Olaztin, aldiz, ikertutako 16 prozesuetatik 15etan parte hartu zuen, balorazio ona eginez haletako 13tan, eta balorazio kontrajarria eginez

44. *Idem*.

45. CDMH, *Archivo Ferroviario de la Depuración*. Alejandro Celaya Zabaloren espeditente pertsonala, 452/5508.

46. «Balorazio kontrajarria» izenak txostenean langile berari buruzko aspektu onak eta txarrak aipatzen zirela esan nahi du. Adibidez, lanean jarrera ona zuela, baina UGTko kidea, bat aipatzearren, zela.

beste 2etan<sup>47</sup>. Enpresaren portaerak negozio-logika bati erantzuten dio: *Compañía de Caminos de Hierro del Norte de España* enpresak langile-galera handiak izan zituen gerran zehar, eta ezin zituen langile gehiago galdu, are gutxiago kualifikatuak baziren eta lan-esperientzia baliotsua bazuten. Batez ere, espediente hauen irekieraren garaian Espainiako trenbide-enpresetan guztizko eraldaketa ematen hasi zela jakinda, enpresa guztien fusioan, eta ondorioz, RENFEren sorkuntzan bukatuko zuena, 1941ean. Testuinguru horretan, zentzuzkoa da enpresak langileak mantentzea nahiago izatea, ezkerrekoak baziren ere, kanporatzea baino, trenbide-sistemaren antolakuntza berrian batere komenigarria ez zena. Txosten horiek langileentzat oso lagungarriak izan ziren, balorazio txarrak zituztenek, enpresari esker, zigor leunagoak pairatu zituztelako, edo batere zigorrik ez (Muñoz Rubio, 1995).

Guardia Zibila askoz zorrotzagoa izan zen. Tuterako 76 prozesutan parte hartu zuen, 31 balorazio positibo, 32 balorazio kontrajarri eta balorazio negatibo bakarra eginez, eta beste 12 kasutan iritzirik ez emanez informazio faltarengatik. Sakanan, 62 prozesutan parte hartu zuen, eta horietan 33 balorazio positibo, 23 balorazio kontrajarri, 4 balorazio negatibo, eta 2 kasutan baloraziorik ez eginez informazio eskasa zela eta. Olaztin, berriz, 15 kasutan parte hartu zuen, 7 kasutan balorazio positiboa eginez, 3tan balorazio kontrajarria, 4tan balorazio negatiboa, eta kasu bakar batean, informazio nahikorik ez zuenez, baloraziorik ez eginez. Bestalde, alkatetzek Tuterako 7 prozesuetan, Sakanako bakar batean eta Olaztiko 6 kasutan parte hartu zuten. Tuterako prozesuetan, 4 balorazio positibo egin zituen, eta beste 3etan baloraziorik ez, informazio nahikorik ez zuelako. Sakanakoan, balorazioa positiboa izan zen, eta Olaztin, 4 balorazio negatibo eta soilik 2 positibo egin zituen. FET y de las JONSek, ordea, Tuterako 6 prozesuetan, Sakanako bakar batean, eta Olaztiko 5etan parte hartu zuen. Tuteran, 5 langileri buruzko balorazio ona eman zuen, baina beste kasu batean informazio faltak balorazioa ematea eragotzi zion. Sakanan egindako balorazioa positiboa izan zen, eta Olaztin beste 4 balorazio positibo egin zituen, nahiz eta balorazio negatibo bat ere egin herri horretan<sup>48</sup>.

Espedienteek ziotena ezagutzeko, adibide bat erabiliko dugu, Tuterako geltokian faktorea zen Pedro Quintilla Abósena. Tuterako alkatetzaren txostenak hau esan zuen: «Certifico [...] que D. Pedro Quintilla Abós [...] durante su permanencia en la misma (hiria; Tuterari buruz hitz egiten du), ha observado buena conducta sin que nada me conste en contrario, desde el año 1.932 al 1º de Julio de 1.936, en que residió en esta ciudad». Goardia Zibilarenak, aldiz: «PEDRO QUINTILLA ABÓS, [...] es de conducta moral y religiosa algo dudosa, y en cuanto a los libros registro que obran en este Puesto, no aparece como afiliado a partido alguno de izquierdas, pero según datos adquiridos era bastante izquierdista, o por lo menos hablaba en tal sentido». Enpresak honela esan zuen: «Durante el período de dominación roja, se limitó al cumplimiento de sus deberes profesionales, siendo según se informa, de tendencia izquierdista, habiendo tenido durante el mismo una actuación pasiva». Falangeak, ordea, beste hau: «Se ausentó de esta ciudad antes del Glorioso Movimiento siendo su conducta buena durante su permanencia en la

---

47. CDMH, *Archivo Ferroviario de la Depuración*. Tuterako eta Sakanako geltokietako espedienteak.

48. *Idem*.

misma». Halaber, Pedro CNTko kidea zen, eta balorazio onak eduki arren, Alcalá de Xiverteko (Castellóneko probintzia) geltokira lekualdatu zuten<sup>49</sup>.

Aipatzekoa ere bada espedienteok akats ortografiko asko zituztela, JNOS (JONS beharrean) edo CNS (CNT beharrean) bezalako kasuak aurkitu baitira. Kontraesanak ere oso nabariak dira. Simón Adán Ruizen kasua hartuko dugu, Tuterako geltokiko langilea. Goardia Zibilak, 1939ko abuztuaren 11n, honela deskribatu zuen: «Buena conducta y antecedentes, sus ideas políticas aunque algo izquierdistas, no era dirigente ni propagandista, ni aún siquiera afiliado a partido alguno». Urte bat geroago, honela: «De ideas comunistas; representó a este partido como vocal en una mesa electoral en las elecciones de 1936». Enpresak ez zituen xehetasun horiek aipatu, Simoni buruz «trabajaba como mozo de agujas, cosa que no dejó de hacer en todo el transcurso del Glorioso Movimiento Nacional [...] No estaba afiliado a ningún partido político y su conducta social fué buena» bakarrik esanez. Falangeak ildo beretik jarraitzen zuen: «Es de conducta personalmente buena; en cuanto a sus ideas políticas no tiene ninguna». Alkatzetzak, aldiz, «derechista, no ha tenido actuación alguna» esan zuen<sup>50</sup>.

## 5. Ondorioak

Lehen momentutik, armada kolpistaren eta erakunde frankisten helburua populazioaren guztizko kontrola edukitzea izan zen. Beraz, depurazio-prozesu masibo bat abiatu zuten, bai langile publikoena bai zerbitzu publikoen enpresa emakidadunen langileena, «Estatu Berria»-ren eraikuntza oztopa zezaketen pertsona guzti-guztiak baztertzeko. Trenbideko langileak bigarren kasuaren barnean sartzen dira. Horren ondorioz, Tuterako eta Sakanako langile guztiak depurazio-prozesuak jasan zituzten. Nahiz eta langileen gehiengoak zigorrak gabe berronartua izan, horrek ez du esan nahi batere errepresiorik pairatu ez zutenik. Zerrenda luzeada: atxiloketak, kanporaketak, erailketak, bortxazko lekualdaketak, etab. Nahiz eta lan-zigorretan jarri gure arreta, lanarekin zerikusirik ez zuten ekintza errepresiboen kopurua lan-zigorrenaren bikoitza inguru izan zen.

Berronartzeen ugaritasuna enpresen interesetan oinarritzen zen, ezin baitzituzten langile gehiago galdu, are gutxiago kualifikatuak, gerran izandako galera handien ondorioz. Enpresaren balorazio ia guztiak onak izan ziren, langileentzat onuragarriak izan zirenak zigorrak leunagoak izateko, edo zigorrak ez jasateko, nahiz eta aurrekari txarrak izan. Zenbakien arabera, Falangeak antzeko portaera izan zuen, baina ez dakigu enpresen logika berdinari erantzuten zion, edo kointzidentzia hutsa baino ez den. Guardia Zibila eta alkatzetzak, ordea, askoz zorrotzagoak izan ziren.

Atentzioa eman digu Sakanaren barnean aurkitutako alde handiak. Sakanan zigor bakar bat ez zen egon, baina Olaztin eta Altsasun, berriz, zigorren kopurua, bai zenbaki absolutuetan bai proportzionalki, oso nabaria da. Tuteran, hainbestekoa ez izan arren, nabaria izaten jarraitzen du. Ez da harritzekoa, hiruretan ezkerrek

49. CDMH, *Archivo Ferroviario de la Depuración*. Pedro Quintilla Abósen espediente pertsonala, 391/3893.

50. CDMH, *Archivo Ferroviario de la Depuración*. Simón Adán Ruizen espediente pertsonala, 559/881.



eta langile-mugimenduak indar handia baitzuten, militantziek erakusten duten bezala. Hala ere, militantziek zigorren gogortzea zekarten, militantzia ezaguna zuten langileek, proportzionalki, militantzia ezagunik ez zuten langileek jasandako zigorren bikoitza jasan baitzuten. Estatu-mailan bezala, kualifikazio gutxiko ogibideak zituzten langileek lan-zigorren metaketa handiagorik ez zuten izan, kualifikazio altuagoko ogibideak zituzten langileekin konparatuta. Halere, badakigu oraindik lan handia gelditzen dela, Salamancan oraindik 75.000 espediente gelditzen baitira, merezi duten analisi egoki baten esperoan. Hau esanda, analisi honek depurazio profesional haiek ulertzen eta ezagutzen lagundu gaitu, eta pertsona errealean talde handi baten esperientziak sakontasun-maila handi batekin ezagutzeko aukera eskaini digu.

Ez genuke ahaztu beharko, ordea, dokumentu hauek errealitatearen eta pertsona haien apur bat baino ez dutela erakusten. Depurazio-prozesuek, edozein iturri judizialek bezala, pertsona haiek haien eguneroko bizitzetatik ateratzen dituzte; Arlette Fargek esan bezala, «las fija en algunas reclamaciones o en algunas lamentables negativas» (Farge, 1991: 25). Horrela izanda ere, 175 pertsona haiei buruz jakin izan dugu momentu zehatz batean haien bizitzek botere frankistarekin talka egin zutelako. Haien esperientziak argira ateratzeko aukera izan dugu; izan ere, behin susmagarriak izan zirelako. Une hori izan zen denbora zeharkatzea eta gure aurrean kokatzea baliatu ziena, tximista labur bat bailitzan. Michel Foucaultek bikainki deskribatu zuen: artxibategia boterearen jarraipena da, pertsona horietatik gelditzen zaizkigun hitzak. Norbait boterearengana joan zelako zerbait salatzerara, kexatzerara, eskatzerara edo erregutzerara, edo botereak esku-hartzea erabaki zuelako, pertsona horiek epaitzeko eta haien zorteari buruz erabakitzeko, esaldi motz batzuk baino ez erabiliz (Foucault, 1996; Pérez-Olivares, 2020: 131-132).

## 6. Bibliografia

- Alejandro García, Juan Antonio (2008): *El régimen franquista. Dos estudios sobre su soporte jurídico*, Editorial Dykinson, Madril.
- Altaffaylla Kultur Taldea (2018 [1986]): *Navarra 1936. De la esperanza al terror*, Altaffaylla Kultur Taldea, Tafalla.
- Álvaro Dueñas, Manuel (2006): «Por ministerio de la Ley y voluntad del Caudillo». *La Jurisdicción especial de Responsabilidades Políticas (1939-1945)*, Centro de Estudios Políticos y Constitucionales, Madril.
- Aranguren, Mirari (2017): *Burdinbideetako langileen depurazio frankismo garaian (Olazti, Nafarroa)* (Gradu Amaierako Lana), Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Iruñea.
- Ballesteros Doncel, Esmeralda eta Martínez Vara, Tomás (2001): «La evolución del empleo en el sector ferroviario español, 1893-1935», *Revista de Historia Económica = Journal of Iberian and Latin American Economic History*, 3, 637-678.
- Bel, Germá (2011): «Infrastructure and nation building: The regulation and financing of network transportation infrastructures in Spain (1720-2010)», *Business History*, 53, 688-705.
- Blasco Gil, Yolanda (2009): «Soporte jurídico de las depuraciones», in Josefina Cuesta (koor.), *La depuración de funcionarios bajo la dictadura franquista (1936-1975)*, Fundación Francisco Largo Caballero, Madril, 28-51.
- Bordes Muñoz, Juan Carlos (2003): *Correos en la España de Franco (1936-1975). Depuración de funcionarios y reorganización de los servicios postales* (doktoretza-tesia), UNED, Madril.

- Casanova Gómez, Marina (1990) «Tribunales de depuración de funcionarios diplomáticos durante la Guerra Civil en la zona franquista», in *Justicia en Guerra: Jornadas sobre la administración de justicia durante la Guerra Civil Española: instituciones y fuentes documentales*, Archivo Histórico Nacional, «Guerra Civil» saila, Salamanca, 373-380.
- Centro Documental de la Memoria Histórica (CDMH), *Archivo Ferroviario de la Depuración*.
- Cuesta, Josefina (koor.) (2009): *La depuración de funcionarios bajo la dictadura franquista (1936-1975)*, Fundación Francisco Largo Caballero, Madril.
- De Pablo Lobo, Carlos (2007): «La depuración de la educación española durante el franquismo (1936-1975). Institucionalización de una represión», *Foro de Educación*, 9, 203-228.
- Estolaza Esnal, Maitane (1996): *El garrote de la depuración. Maestros vascos en la Guerra Civil y el primer franquismo (1936-1945)*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Donostia.
- Farge, Arlette (1991): *La atracción del archivo*, Institutió Alfons el Magnánim, Valentzia.
- Foucault, Michel (1996): *La vida de los hombres infames*, Museos de Buenos Aires, Buenos Aires.
- Fernández Soria, Juan Manuel & Agulló Díaz, María del Carmen (1999): *Maestros valencianos bajo el franquismo. La depuración del Magisterio*, Institutió Alfons el Magnánim, Valentzia.
- Fondo Documental de la Memoria Histórica en Navarra-Nafarroako Oroimen Historikoaren Dokumentu Funtza (FDMHN-NOHDF), <<https://memoria-oroimena.unavarra.es/>>.
- Fundación de los Ferrocarriles Españoles. *Archivo Histórico Ferroviario*.
- García Piñeiro, Ramón (1989): *Los mineros asturianos bajo el franquismo (1937-1962)*, Universidad de Oviedo, Oviedo.
- García Umbón, Alberto (1989): «Elecciones y partidos políticos en Tudela, 1931-1933», *Príncipe de Viana*, 186, 221-262.
- García Umbón, Alberto (2005): «Tudela, desde las elecciones de febrero de 1936 hasta el inicio de la Guerra Civil», *Príncipe de Viana*, 234, 235-272.
- Garmendia, José María & González Portilla, Manuel (1993): «Crecimiento económico y actitudes políticas de la burguesía vasca en la postguerra», in Isidro Sánchez, Manuel Ortiz eta David Ruiz (koor.), *España franquista. Causa general y actitudes sociales ante la Dictadura*, Ediciones de la Universidad de Castilla-La Mancha, Ciudad Real, 179-195.
- Gómez Mendoza, Antonio (1989): *Ferrocarril, industria y mercado en la modernización de España*, Espasa Calpe, Madril.
- Graham, Helen (2005): *Breve historia de la guerra civil*, Editorial Austral, Bartzelona.
- Ibarz Gelabert, Jordi (2004): *Treballant el silenci: les relacions laborals dels estibadors del port de Barcelona durant el primer franquisme, 1939-1947*, Consorci de les Drassanes Reials i Museu Marítim de Barcelona, Bartzelona.
- Instituto Nacional de Estadística (INE): *Poblaciones de hecho desde 1900 hasta 1991. Cifras oficiales de los Censos respectivos*.
- López Díaz, Juan Carlos (2019): «Aproximación a la depuración de los trabajadores del ferrocarril: el caso de los empleados de la MZA en Mérida», *Revista de Estudios Extremeños*, 75, 1045-1077.
- Majuelo, Emilio (1986): «Nafarroan 1934-ko Urriaren Iraultzari Buruzko Zertzelada Batzu», *Príncipe de Viana*, 5, 81-89.
- Majuelo, Emilio (1986): *Luchas de clases en Navarra (1931-1936)*, Nafarroako Gobernua, Iruña.
- Majuelo, Emilio et al. (2019): «Gertakari errepresiboak kuantifikatzea: Nafarroako Memoria Historikoaren Dokumentu Funtzaren azalpena eta erronkak», *Memoriapaper(ak)*, 5.

- Majuelo Emilio et al. (2021): Víctima mortales de la represión en Navarra durante la guerra civil y el primer franquismo (1936-1948), *Memoriapaper(ak)*, 10.
- Mañas Leache, José Luis, & Urabayen Mihura, Juan Pedro (1998): « Las últimas elecciones de la II República en Navarra (Elecciones a compromisarios para la elección de Presidente de la República, 26-IV-1936)», *Príncipe de Viana*, 10, 243-264.
- Mikelarena, Fernando (2015): *Sin piedad. Limpieza política en Navarra 1936. Responsables, colaboradores y ejecutores*, Pamplona, Arre.
- Ministerio de Obras Públicas (1940): *Antecedentes y datos para el Estudio del Problema Ferroviario*, Madrid.
- Moliner, Carme & Ysàs, Pere (1985): «Patria, Justicia y Pan». Nivell de vida i condicions de treball a Catalunya, 1939-1951, La Magrana, Barcelona.
- Moliner, Carme & Ysàs, Pere (1993): «Productores disciplinados: control y represión laboral durante el franquismo (1939-1958)», *Cuadernos de Relaciones Laborales*, 3, 33-49.
- Muñoz Rubio, Miguel (1995): *RENFE (1941-1991). Medio siglo de ferrocarril público*, Ediciones Luna, Madrid.
- Muñoz Rubio, Miguel (2011): *Organizaciones obreras y represión en el ferrocarril: una perspectiva internacional*, Fundación de los Ferrocarriles Españoles, Madrid.
- Oviedo Silva, Daniel (2021): «Vías muertas», *Memoria antifranquista de Baix Llobregat*, 21, 116-121.
- Pérez-Olivares, Alejandro (2020): «Sumarísimas historias. Verdugos, colaboradores y construcción de la culpabilidad en la ¿justicia? franquista de ocupación», in Fernando Hernández Holgado & Tomás Montero Aparicio (koord.), *Morir en Madrid (1939-1944). Las ejecuciones masivas del franquismo en la capital*, Antonio Machado Libros, Madrid, 120-133.
- Pino Abad, Miguel (2007): «Los inicios de la Administración central franquista», *Anuario de historia del derecho español*, 77, 377-425.
- Plaza, Antonio (2004): *El asociacionismo ferroviario en España (1870-1971)*, Universidad Autónoma de Madrid, Madrid.
- Plaza, Antonio (2016): «El sindicalismo ferroviario en España: de las sociedades mutualistas a los sindicatos de industria (1870-1936)», *Revista TST*, 30, 14-47.
- Polo Muriel, Francisco (2015): *La depuración del personal ferroviario durante la Guerra Civil y el franquismo (1936-1975)* (doktoretza tesia), Universidad Autónoma de Madrid, Madrid.
- Rodrigo Sánchez, Javier (2001): «La bibliografía sobre la represión franquista: hacia el salto cualitativo», *Spagna Contemporanea*, 19, 151-169.
- Rodríguez Barreira, Óscar (2015): *Pupitres vacíos. La escuela rural de postguerra. Almería, 1939-1953*, IEA, Almería.
- Sánchez Pérez, Fernando (2013): «Documentos elaborados por el General de Brigada Emilio Mola Vidal, comandante militar de Navarra, para la preparación del golpe de Estado de julio de 1936», in Fernando Sánchez Pérez (koord.), *Los mitos del 18 de julio*, Crítica, Barcelona.
- Tusell, Javier (1988): *La dictadura de Franco*, Alianza Editorial, Madrid.

